

DEIALDIA

2025eko deialdia, Merkataritza, ostalaritza eta enpresa alorrean euskarazko errotuluak, irudi korporatiboa eta webguneak euskaraz jartzeagatik dirulaguntzak.

LEHENENGOA - Dirulaguntzaren xedea eta baldintzak

Deialdi honen xedea da errotuluak, irudi korporatiboa eta webguneak euskalduntzeagatik entitateei dirulaguntzak ematea.

BIGARRENA - Dirulaguntzaren xede diren kredituak eta aurrekontu-partida

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzetarako Udalaren 2025eko aurrekontuan finkatutako kopurua 3.500 € da eta 471.01.335.00.0141 2025 diru-partidatik bideratuko da.

Aipatu diru kopurua dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztien artean banatuko da.

Partida horretan jasotako diru kopurua baino handiagoa balitz eskaera, Udalak xede bererako diru-kopuru berri batzuk onetsi ahal izango ditu, baldin eta aurrekontu-eskuragarritasuna badago.

HIRUGARRENA - Dirulaguntza emateko prozedura


Dirulaguntzak norgehiagokaren bidez emango dira. Ordiziako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren II. tituluko 1. atalean ezarritakoaren arabera jardungo da.

LAUGARRENA- Onuradunek dirulaguntza lortzeko bete behar dituzten baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua

Hauek dira onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak:

- Gizarte Segurantzarekiko, Ogasunarekiko eta Ordiziako Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan adierazitako kasuren batean ez egotea.
- Genero-indarkeriagatiko diskriminazioan erortzeagatik administrazio-zehapen edo zehapen penalik ez izatea (dagokion zehapenean ezarritako aldiaren).

Hauek dira onuradunek bete beharreko baldintza espezifikoak:



Ordiziako Udala

2025GOIO0012

-Testua zuzen idatzita egon beharko da; Euskara Zerbitzuak ontzat eman beharko du errotuluan eta gainontzeko elementuetan jarri beharreko testua, beti ere inprimatu baino lehen.

Webguneen kasuan, Euskara Zerbitzuak, ez du bere gain hartuko webguneetako edukiak euskaratzeko ardura. Nolanahi ere, euskara mailaren kalitatea bermatu behar denez, Euskara Zerbitzuak zenbait itzulpen zerbitzuren telefonoak eskainiko ditu lan hori errazteko.

-Izen propioa bakarrik agertzen bada ez da inolako dirulaguntzarik emango. Dendariak ez du dirulaguntzarik jasoko errotulu berrian izen berezia soilik agertzen bada; adibidez, "Arantxa" edo "Tximeleta". Aldiz, jasoko du dirulaguntza izen generikoa ere agertzen bada, esaterako, "Arantxa oinetakoak" edo "Tximeleta belar-denda".

-Aipatutako elementu bakoitzeko (errotulu, irudi korporatibo, webgune) behin bakarrik eskatu ahal izango da dirulaguntza.

-Izaera ez ofizialeko entitateek bakarrik jaso ahal izango dituzte dirulaguntza hauek.

BOSGARRENA - Laguntzak emateko prozedura antolatzeke, bideratzeko eta ebazteko eskumena duten organoak

Ordiziako Udaleko Euskara Sailak bideratuko du prozedura.

Alkatetza da dirulaguntza-prozedura antolatzeke eta ebazteko organo eskuduna, egin ditzakeen eskuordetzei kalterik egin gabe.


SEIGARRENA.- Eskabideak aurkezteko epea

2024ko abenduaren 1etik 2025eko azaroaren 30era burututako ekintzen eskabideak abenduaren 5a baino lehen aurkeztu behar dira.

Eskaerak, telematikoki aurkeztu behar dira www.ordizia.eus atariko dirulaguntzen atariaren bidez. Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoetako Prozedura Arrunta arautzen duen 39/2015 Legearen 16. Artikuluan ezartzen duen eran aurkeztu ahal izango dira.

ZAZPIGARRENA.- Ebazteko eta jakinarazteko epea

Behin betiko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa da, dagokion deialdia argitaratzen denetik aurrera.



Ordiziako Udala

2025GOIO0012

ZORTZIGARRENA - Eskararekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak eta informazioak

Dirulaguntza eskatzaileek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Dirulaguntzaren inprimakia behar bezala beteta.
- Ateratako materialaren ale bat edo irudi bat, eta webguneen kasuan, URLa.
- Egindako lana jasotzen duen fakturaren kopia.

BEDERATZIGARRENA - Errekurtsoak

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Alkateari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeko errekurtsoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

HAMARGARRENA - Jakinarazteko edo argitaratzeko bidea

Eskatzaileak eskabidean adierazitako tokian eta moduan egingo dira jakinarazpenak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan ondorio horietarako ezarritakoa kontuan hartuta.

Sinatzailea	Euskara Teknikaria Maria Teresa Berruet Arbelaiz
	Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAARJ4Q7.HSjX